



BARREN

TOKIKOM

Organo bizia

125. urteurrena



Maria Jesus Barrutia Etxaniz

2020ko urtarrilaren 22an hil zen, 76 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Zure irribarre goxoa eta maitasuna
betirako izango dira gure artean.***

Familia



Clara Zabala Larrañaga

2020ko otsailaren 18an hil zen, 91 urte zituela.
Haren oroimenez meza izango da, domekan, otsailaren 23an,
12:30ean Azpilgoetako elizan. Sendiak bihotzez eskertzen ditu
jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Izan zarenagatik
eta erakutsi duzunagatik,
ez zaitugu ahaztuko***

Etxekoak



Jose Luis Oñederra Elortegi

"Zabaleta"


2020ko otsailaren 8an hil zen, 81 urte zituela.
Haren oroimenez, domekan, otsailaren 23an, meza izango da,
10:30ean Sallobenteko ermitan. Sendiak bihotzez eskertzen ditu
jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



I. URTEURRENA

Domingo Arrieta Garate

2019ko otsailaren 13an hil zen, 69 urte zituela.
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, domekan,
otsailaren 23an, 12:30ean, Mendaroko Azpilgoetako eliz-parrokian.
Joango zareteneoi alde zurretik eskerrak.



“Entitateetako hizkuntza-ohiturek zuzenean eragiten diete bertako kideei, eta horregatik animatuko ditugu entitateak Euskaraldian parte hartzera”

Gustura geratu zen Elgoibarko EUSKARALDIA Taldea ekimenak lehen edizioan Elgoibarren izan zuen eraginarekin. Jende askok eman zuen izena eta, oro har, jendeak ondo bete zituen hartutako konpromisoak. Baina lehen edizioaren ondoren bigarrena dator, eta, dagoeneko, taldeak buru-belarri dihardu lanean bigarren edizioa ere arrakastatsua izan dadin. Taldeko koordinatzaile den Imanol Larrañagarekin egon gara bigarren edizioak zer dakarren hobeto jakiteko.

◆ Dena prest bigarren ediziorako?

Baietz uste dut. Talde Eragilean jaso eta barneratu dugu bigarren edizioak proposatzen duena, eta orain gizarteratze-lana prestatzen dihardugu. Udara artekoa Euskaraldia entitateei aurkeztzen emango dugu; irailean, berriz, norbanakoei informazioa eman eta animatzeko lanekin hasiko gara.

◆ Entitateen parte-hartzea izango da bigarren edizioko berrikuntza nagusia?

Bai, hala da. Lehen edizioan norbanakook bakarrik egin genuen ariketa. Bigarren edizioan, berriz, entitateek ere era aktiboan parte hartzeko aukera izango dute. Entitateetako hizkuntza-ohiturek zuzenean eragiten diete bertako kideei, eta horregatik animatuko ditugu entitateak Euskaraldian parte hartzera.

◆ Kontzeptu berri bat ere asmatu duzue bigarren ediziorako: *arigunea*.

Entitateen baitan identifikatuko diren guneak dira; gune naturalak, lehendik dauden guneak (bulego, departamentu, mostradore, eta abarrrak), non euskaraz egin dezaketen arazorik gabe; hortaz, euskaraz lasai jarduteko taldeak edo guneak izango dira *ariguneak*. Entitateen egiteko nagusia *ariguneak* identifikatzea izango da.

◆ Zer baldintza bete behar dira entitate batean *arigune* bat sortzeko?

Bi dira baldintzak. Bat: talde edo gune bateko kide guztiek ulertu beharko dute euskara. Eta bi: gehiengoak erabakiko du parte hartu nahi duen, eta beraz, talde edo gune hori *arigunea* izango dela.

◆ Lan handia izango al da entitateentzat?

Ez. Entitate bakoitzak erabaki behar duena da Euskaraldian parte hartu nahi duen ala ez. Eta ariketa egitea erabakitzen dutenek *ariguneak* identifikatu beharko dituzte, eta ariketa egiteko prestatu.

◆ Elgoibarren 700 entitate inguru dago. Nola helduko zarete entitate guztietara?

Gure nahia ahalik eta entitate gehienekin aurrez aurre egotea da, baina badakigu denekin ezingo garela egon. Aurkezpen sektorialak egingo ditugu martxoan; sektore bakoitzari aurkezpen bat. Bestalde, aurkezle sarea ere hor daukagu 30 lagun baino gehiagorekin. Gure esku dagoena egingo dugu herrian estrategikoak diren entitateekin aurrez aurre egoteko.

◆ Lehen edizioko metodologia errepikatu egingo da bigarrenean, ezta?

Bai, ariketaren muina lehen edizioko bera da: hizkuntza-ohiturak euskararen mesedetan aldatzea izango da helburu garrantzitsuena eta, horretarako,

ahobizi eta *belarriprest* rola errepikatuko ditugu. Ariketaren iraupenari dagokionez, aurten 15 egunez egingo dugu, azaroaren 20tik abenduaren 4ra.

◆ Amaitzeko, Euskaraldia mugarri bat al da euskalgintzan?

Baietzean nago. Ez da mugarri bakarra, noski, baina proposamena berritzailea da eta ilusioa sortu du. Euskaraz jakin eta ulertzen dugunon artean euskaraz gehiago egiteko metodo berria da, eta euskararen alde egotetik euskaraz egitera pasatzeko gonbita. Lehen edizioaren gainean egindako ikerketako emaitzek ariketak balio duela erakutsi digute.





IBON SERRANO LASA

Ingeniaria

rakurlebakar, berriki egin dudan bidai bati buruz mintzatuko naitzaizu zure baimenaz. Badaukat nolabaiteko joera Pirinioez gaindiko gure bizilagunen lorpenak aitortzeko. Jakobinismo zentralista homogeneizatzailea laket ez dudan arren (ezta bertako komertzioen ordutegia), oro har hango gizartean maila kultural askoz garaiagoa arnasten dela uste dut.

Honen harira, duela aste batzuk aukera izan nuen Angoulême hirian urtero ospatzen den munduko komiki azoka garrantzitsuena behingogatik ezagutzeko.

Bada, txunditurik itzuli naiz handik! Zaila da deskribatzen giroa. Hiriko kale, enparantza, museo, erakustazoka eta areto-tatik barna hamaika erakusketa, ekitaldi, hitzaldi, lehiaketa, omenaldi 9. artearen inguruan.

Milaka eta milaka ale berri eta klasiko, batez ere frankofono, baina jatorri askotarikoak, gai eta estilo oro, adin guztientzat, arinak, sakonak, konprometitua edo azalekoak, fanzine underground ilunenetik hasi eta saildu kristauen komikietaraino. Izugarria! (...zoritzarrez, San Blas gozogilearen biografia ez nuen aurkitu).



Angoulême, horren gertu... eta horren urrun...

Guzti honi hauspoa emanez, sekulako industria: ehunka editorial, profil profesional, ikasketa arautu, negozio eredu berritzaile eta baliabide teknologiko (kontuz! beti ere oinarria artisaun lana delarik). Laburbilduz, puntako merkatu *millionaire* bat aisialdi eta kulturaren inguruan.

Noski, hau dena publiko zabal, anitz, irakurzaile eta jantzi batez sostengatua. Gurean, berriz, jarduera honek umeen edo frikien esparru *bizarre*-aren estigmatizaturik dirau kronikoki. *Erreflexionne* bat beharko al luke honek?

Bukatzeko, Angoulêmeko Margueriteren (1492-1549) figura historikoa deskubritu dut bertan (nire lotsarako); nor izango eta, Aro Modernoko lehenengo Nafarroako erregina!. Fernando Katolikoaren konkistaren aurka borrokatu

zen emakume ausart eta ilustratua, hain zuzen ere.

Hots, bidaiaren ondorio gazi-goza: horren gertu eta... horren urrun...

(Azkenik, bi iragarki:

- Adi ILUNBERRI
ACHADEMIAK aurten antolatu duen ARO MODERNOari buruzko hitzaldi ziklo ezin

interesgarriagoari!

- Bidaia honen dossier irudikatua ikusteko jo lotura honetara: <https://isl70marrazki.blogspot.com/>).



BARREN

ARGITARATZAILEA:



ELGOIBARKO IZARRA
Eusko Leuzen Topagunea

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR
943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zalaoa Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegia, Jone Olaiola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia

BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enrantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► SANTA ESKEKO ANTOLATZAILEEI ESKERTZA

Pasa den otsailaren 8an santa eskean aritzeko aukera izan genuen Arno Guraso Elkarteke kideok. Santa eskeko antolatzaileek aurten eurekin parte hartzeko aukera eman ziguten eta gure aldetik eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu. Horrez gain, aurtengo eskean jasotako diruaren zati bat Arno Elkarteari ematea erabaki dute, eta hori oso ondo etorriko zaigu haurren aldeko ekintzak antolatzeko.

Primeran pasatu genuen. Talde oso polita osatu zen.

Arno Guraso Elkartetik, beraz, benebenetan eskertzen dizuegu emandako diru-laguntza eta gurekin akordatu izana. Segi horrela!

Arno Guraso Elkartea

► ZABORTEGIAREN LUIZIAK ERAGINDAKO KUTSADURA

Elgoibarko guraso talde bat gara eta Zaldibarko Eitzaga auzoan kokatutako Verter Recycling zabortegiko luiziak (otsailaren 6an gertatu zena) sortutako ingurumen kutsaduraz oso kezkatuta gaude.

Jaurlaritzari atxikitako IHOBE Sozietate Publikoak argitaratutako ur eta aire lagineri dagozkien txostenak irakurri ditugu eta gure herria aipatutako zabortegitik 10 kilometroko erradiora egonda ere, ez da Elgoibar inondik inora agertzen.

Aireari dagokionean, laginetan aztertutako parametro guztien artean dioxina eta furanoen ez ohiko maila aipatzen dute, txostenetan emotikono hori bat erabiliz, eta beti ere, otsailaren 9an jasotako aire lagin bakarria kontuan hartuta. Ondorioz, otsailaren 14tik aurrera badaezpadako osasun neurriak gomendatu zituzten Eibar, Ermua eta Eitzagako biztaleentzat.

Dioxina eta furanoak 20 kilometro-

tako erradio batean antzeman badaitzke, nolatan ez da egin oraindik Elgoibarren aire neurketarik? Hori Jaurlaritzaren eskumena izanda ere, uste dugu Elgoibarko Udalak beregain hartu beharko lukeela berehalako aire laginketa herritarren hobe-beharrez.

Bestalde, laginen analisisen berri ematen duten ingurumen txosten guztiek izan beharko luketen moduan, orain arte egin diren aire laginketen emaitza zehatzak nahi ditugu, hau da, neurtu diren parametro guztien kontzentrazio zehatzak. Ondo legoke laborategiak bidalitako emaitzen txostenak atxikita jartzea herritarrok kontsultatu ahal izateko. Orain arte ez digute herritarroi airearen kalitateari dagokionean neurri zehatzik aipatuguk interpretatu ahal izateko.

Eta jakin badakigu, airetik kutsadura lurrera eta uretara pasatzen dela, beraz goazen lehenbailehen ahalik eta zehatz aztertzeraz noraino heldu daitekeen zabortegiak eragindako ingurumen kutsadura gure bailara honetan, denon onerako, eta horretan Elgoibarko Udalak ere badu bere erantzunkizuna.

A.M.A.

(Elgoibarko guraso talde baten izenean)

► LEKUKO BILA

Urtarrilaren 17an, San Anton eguna, 88 urteko nire aitak ezkerreko aldaka hautsi zuen adingabeko neska batek bultzada zakar bat eman ostean lurrera erorita. 18:15 inguruan zen. Salento tabernatik irteten ari zen nire amarekin, eta San Anton jaietako ekitaldien parte ziren buruhandiak inguruan zebiltzan. Aitak gogoratzen duenez, une horretan albotik pasatu zen neska batek demaseko bultzada bat eman zion eta lurrera bota zuen. Neskak berehala hanka egin zuen aita lurrean utzita. Inguruan zen adingabeko mutil bat saiatu zen aitari laguntzen, baina hura ere azkar desagertu zen. Orditik aita ospitalean dago, zutik

jarri eta pauso batzuk emateko adore bila egunero. Baina zailena sentitzen duen haserre eta frustrazioa gainditzea egiten ari zaio, beretzat eguneko momenturik onena ematen zituen pasiarra luzeak zirelako. Gertakari honek, gure familiari atsekabe handia emateaz gain, eragin handia izan du gure eguneroko bizitzan, eta egunerokoa goitik behera aldatu digu. Hainbat herritarrek, adineko asko tartean, izan dute istripu honen berri eta adierazi digute beldur direla herriko hainbat lekutatik pasatzeko, arratsaldeko orduetan batez ere, ume eta adingabe asko inolako konturik gabe ibiltzen direlako korrika, patinetearekin, e.a. Pertsona nagusi askorentzat kalera irtetea ekintza arriskutsua bilakatu da.

Nire aitak ezingo du inoiz gehiago laguntzarik gabe ibili, norbaitek erabaki zuelako bere bidean traba egiten ziola eta bidezkoa zela hura lurrera bota eta han uztea. Bidegabekeria honi irtenbidea emateko bultzada zakar horren egilearen gurasoen erantzukizun zibila eskatzea beharrezkoa dela uste dugu. Gure helburua ez da inola ere adingabe horren aurka neurriak hartzea edo bere izena publikoki jakinaraztea. Eskutitz hau irakurri baduzue eta laguntzeko prest bazaudete, benetan eskertuko nizueke gertakari honen inguruan baliagarri izan daitekeen datu edo informazioaren bat bidaltzea akinboa@gmail.com helbidera. Lortutako informazioa diskrezio osoz kudeatuko dugula zin egiten dugu.

A.O.

Jaurlaritzak hiru milioi euroko inbertsioa egin du Debabarrenean



Landagapeneko 22 proiektu finantzatu ditu Eusko Jaurlaritzak Debabarrenean, Erein, Leader eta Itsaspe izeneko programen bidez. Azken bi urteetan, guztira, hiru milioi euroko inbertsioa egin du, eta finantzatutako proiektuetako batzuk bisitatu zituzten otsailaren 14an agintariek. Izan ziren Itziarren, Burugorri eraikina eta bere taberna kooperatiboa ikusten, izan ziren Mendaron, ospitale azpian eraiki zuten kirol anitzeko gunea ikusten, etorri ziren Elgoibarrera, Altzolako Gizarte Zentroa ikustera eta izan ziren Eibarren ere, Ixua hotela ikusten.

Txankakuak banatu ditu Eguberrietako sariak



Txankakua merkatarik elkarrekin Gabonen bueltan antolatzen duten zozketak irabazleek joan zen barikuan jaso zituzten sariak. Guztira hamar sari zozkatu zituen Txankakuak, 1.800 euro dirutan. Sari nagusiak, 500 euroko bonoak, Gloria Agüerak eta Amaia Olivaresek jaso zituzten, eta 100 euroko bonoak honako beste hauek: Sonia Astigarraga, Brigida Bustamante, Idoia Oiarzabal, Paula Sanchez, Miriam Tadeo eta Mertxe Artetxek.

Odol ateratzeak egingo dituzte gaur zortzi, Elgoibarren

Elgoibarko Odol Emaileen Elkartetik jakinarazi dute gaur zortzi, otsailaren 28an, egingo dituztela Elgoibarren odol ateratzeak 18:00etatik aurrera. Odol emaeleek aukera izango dute txanda hartzeko. Horretarako honako telefono zenbakira deitu behar dute egunean bertan, 15:00etatik aurrera: 623 328 408.

Familian alkoholismoak duen eraginari buruzko hitzaldia

Familian alkoholismoak duen eraginari buruzko hitzaldia antolatu du Mendaroko Udalak otsailaren 25erako (martitzena). 18:30ean izango da, udaletxeko batzar aretoan. Jose Antonio de la Rica psikiatrak eta AA eta Al-Anon elkarteetako bi kidek hartuko dute parte.

'Maitemindu zeure buruaz eta gero zeuk nahi duzunaz' tailerra

Maitemindu zeure buruaz eta ondoren zeuk nahi duzunaz izenburuko tailerra antolatu du Elgoibarko Udaleko Berdintasun Sailak astelehenerako, hilaren 24rako. Kultur Etxeko hitzaldi gelan izango da tailerra, doan, eta Loredi Salegik dinamizatuko du. Ikastaroa elebitan izango da, eta bi orduko iraupena izango du, 18:00etatik 20:00etara.

Izandig proiektua jarriko dute abian Elgoibar Ikastolan

#Izandig egitasmoan parte hartuko dute Elgoibar Ikastolako LH5ekoek otsailaren 27tik aurrera. Komunikazio eta informazio teknologien edo IKT-ekiko jarrera kritikoa sustatzea bultzatzen du #Izandig proiektuak. Whatsapp, Instagram, postuak, Fortnite... eta antzerakoak erabiltzean izan dituzten jarrerak eta horien atzean dauden balioak landuko dituzte, besteak beste.

XVI. mendeko untzigintza izan dute mintzagai Aro Modernoari buruzko zikloan

Elgoibarko Izarrak antolatuta, eguaztenean hasi zen Aro Modernoari buruzko hitzaldi zikloa, eta lehenengo saio horretan XVI. mendeko untzigintzari buruz jardun zuen Lourdes Odrizola Erreteriako historialariak. Garai hartako untzigintzan Euskal Herria potentzia nagusia zela esanez



hasi zuen hitzaldia, eta ideia horren bueltan gorpuztu zuen bere saioa. Nagusitasun horren arrazoia euskaldunek zeukaten abantaila teknologiko bati esker izan zela azaldu zuen: euskaldunek herrialde nordikoek erabiltzen zuten teknika zurruna, eta aldi berean mediterraneoek zeukaten untzien arintasuna menperatzen zuten, eta horrek nabigaziorako erraztasunak eskaintzen zizkien. Garai hartan kostaldea gaur egun barnekaldea den eremuetaraino iristen zen, eta biztanleriaren gehiengo aitasora begira bizi zen, lurra ez zuelako denentzako produkzio nahikorik ematen. Gipuzkoa eta Bizkaia joera desberdina izan zutela ere aipatu zuen, eta bereziki, orduko euskaldunen ekintzailetasuna nabarmendu zuen. Emakumearen papera ere garrantzitsua izan zen, garai hartan hasi zelako gizarteko esparru desberdinetan barneratzen.

Zikloko bigarren saioa martxoaren 11n izango da. Emakumearen Nazioarteko Egunaren harira, Haizearekin antolatuta dute saio hori: Amaia Nausiak Nafarroako Konkistaren testuinguruan emakumeak izan zuen paperari buruz hitz egingo du.

Ahalduntze tailerra, Mendaron

Martxoaren 8ari begira, emakume eta gizonezkoen zuzendutako Nire zirrarak paperean eta oihalean marraztuz tailerra antolatu du Mendaroko Udalak martxorako. Bost eguneko ikastaroa izango da, goizez, 9:15etik 12:30era. Martxoaren 2, 9, 16, 23 eta 30 egunetan egingo da ikastaroa, eta gehienez hamabi lagunentzako lekua egongo da. Ikastaroan izena emateko azken eguna otsailaren 23a da. Izena emateko, 943 033 282 telefono zenbakira deitu behar da edo kultura@mendaro.eus posta elektronikora idatzi. Ikastaroan honako kontu hauek landu nahi dituzte, besteak beste: sormenaren bidez ahalduntzea bultzatu, auto-estimua, auto-ezagutza eta pentsamendu positiboa hobetu, auto-ezagutzaren bidez beldurrak landu eta emozioak adieraztea eta kanalizatzea.

Zabalduta dute aldi baterako egoitza egonaldiak egiteko eskaerak aurkezteko epea

Elgoibarko Udaleko Gizarte Ongizate Sailak jakinarazi du zabalduta dutela oporraldian adinekoentzako egoitzetan egonaldiak egiteko Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatzen duen programarako eskabideak aurkezteko epea. Ekaineko bigarren hamabostaldiko egonaldietarako izena emateko azken eguna apirilaren 7a da. Uztaileko egonaldietarako izena eman nahi duenak, berriz, apirilaren 30a arteko epea du izena emateko, eta abuztuko egonaldietarako izena eman nahi duenak, ekainaren 10era artekoa. Iraileko lehenengo hamabostaldiko egonaldietarako izena eman nahi duenak, berriz, uztailearen 10a aurretik eman behar du, eta urtarrilaren 7ra arteko egonaldietarako, urriaren 20a aurretik.

LAGUNAK
colchoneria textil hogar
Etorri eta bisita gaitzazu,
kalitatezko chunak
topatuko dituzte!

MERKEALDIA

%45eko
beherapena umeen izara
eta ohe estalkietan

%25eko beherapena
Quality eta Kol etxeetako
nordikoetan

%40ko beherapena
manta eta izaretan

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com



Zabor artean, argi bila

Eitzagako (Zaldibar) zabortegeari lotutako albisteez egonezina eta haserrea sortu dute bazterretan, eta kezka handitu egin da joan zen barikuaz geroztik. Zabortege inguruan otsailaren 9an egin zituzten aire-neurketen emaitzak eman zituen orduan Osasun Sailak eta esan zuen normala baino 40-50 aldiz dioxina eta furano kontzentrazio handiagoa neurtu zutela. Lasai egoteko eskatu zuten hala ere Osasun Sailatik, baina, aldi berean, prebentzio neurriak hartzeko eskatu zieten Ermuko, Eibarko eta Zaldibarko herritarrei. Eskatu zieten etxeak ahal bada ez egurasteko, gabez batez ere leihorik ez zabaltzeko eta aire librean ariketa fisikoa egitea saihesteko. Eskola Kiroleko ekitaldiak bertan behera laga zituzten asteburuan, bai eta Eibar-Real Lehen Mailako partida atzeratu ere. Herritar asko ez daude lasai, eta kezka Elgoibarren ere suma daiteke. Horren adibide da atzo egin zen manifestazioa. Eibartik bost kilometrora gaude, Eitzagatik 10 kilometrora, baina Osasun Sailak zehaztutako badaezpadako perimetrotik kanpo. Argi bila, Udalean eta Mendaroko ospitalean galdetu dugu, eta galdekatuko ditugu EHUko irakasle eta ikertzaile zenbait ere. Ospitaletik Osasun Sailera bideratu gaituzte eta Udaletik lasaitasun mezua zabaldu du Ane Beitia alkateak. Osasun Sailarekin "hartueman estua" dutela nabarmendu du, eta zerbait balitz, berehala ohartaziko lituzketela herritarrak. Adituak, berriz, bat datoz gauza batean: sortu den alarma "gehiegizkoa" dela, baina "logikoa" eta "ulergarria" ere bai, informazio asko zabaldu delako, "nahasian".

- AINARA ARGOTIA -

Verter Recycling 2002 SM enpresaren Eitzagako (Zaldibar) zabortegeak krak egin zuen otsailaren 6an eta 500.000 metro kubo lur eta hondakin jausi ziren AP-8 autobideraino. Geroztik, [hilak 19 da gaur], bi langile, Alberto Sololuze eta Joaquin Beltran, hondakin artean galduta daude, baina zabortegean amiantoa dagoela jakiteak, lurraren ezegonkortasunak eta gerora piztu den suak zaildu egin ditu haien topatzeko lanak. Berez "hondakin ez arriskutsuak" hartzeko baimena zuen Eitzagako zabortegeak, baina dagoeneko gauza jakina da amiantoa zegoela eta gainera baimendutakoa baino jarduera eremu handiagoa hartua zeukala zabortegeak. Zabortegearen kudeaketan arau haustek egin direla ezaguna da beraz, eta zabortegearen zati batean su piztu zenetik, kezka handitu egin da [eguztenez itzali zuten]. Otsailaren 8an piztu zen su, eta sutean "osasunean eragin zezaketen substantziak sor zitezkeela sumatuta" airearen kalitatea neurtzeko unitate ibiltariak jarri zituen Ermuan Ingurumen Sailak.

Airearen kalitatea "normala" dela zabaldu zuten biharamunean, baina joan zen barikuan, hilaren 14an, oso bestelako albistea zabaldu zuten Osasun Sailatik, falta zituzten datuak bilduta. Esan zuten normala baino 40-50 aldiz dioxina eta furano kontzentrazio handiagoa neurtu zutela otsailaren 9an egindako neurketetan. Klorodun konposatu organikoak erretzean sortzen diren osagai kimikoak dira horiek, toxikoak eta liposolugarriak, bizidunon gantz-ehunetan pilatzen direlako. Normalean, aireko metro kubo bakoitzean 10 eta 40 zentigramo artean izaten dira dioxinak eta furanoak, baina Eitzagan 700 zentigramo neurtu zituzten. Egoera hori ikusita, zuhurtzia printzipioa aplikatu zuen Osasun Sailak eta bi gomendio egin zizkien Eibar, Ermua eta Zaldibarko herritarrei: etxeak ez egurasteko eta aire librean kirolik ez egiteko. Hala, bertan behera laga zituzten kirol ekintzak asteburuan, eta airean neurtu zen dioxina eta furano ugartik babesteko, astelehenaz geroztik eskola-umeek ez dute jolastokira irteterik izan hiru herriotan eta ka-

leko hainbat ekintza ere bertan behera laga dituzte. Martitzenean, azkenik, luperiaren inguruko azalpenak eman zituzten legebiltzarrean Iñigo Urkullu Eusko Jaurlaritzako lehendakariak, Nekane Murga Osasun sailburuak, Estefania Beltran de Heredia Segurtagintza sailburuak eta Iñaki Arriola Ingurumen sailburuak. Gertatutakoa "benetako tragedia" izan zela esan zuen Urkulluk eta barkamena eskatu zuen egin ahal izan dituzten akatsengatik. Era berean, zoritxarrari "batasunetik" erantzuteko eskatu zien herritarrei eta indar politikoei, eta aurkeztu zuen aurki izango zituztela airearen kalitatearen inguruko datu gehiago [atzorako].

Gertatutakoaren laburpen bat da hona artekoa, otsailaren 6ko azkeneko geroztik, kontu ezin beste albiste sortu dituelako gai honek. "Galduta" eta "kezkatuta" agertu dira herritar asko eta sare sozialen bidez udal agintariei galdera egin dien elgoibartarrik ere izan da. Elgoibarko EHBilduk eta Gaurgeroa-Duintasunak ere agertu dute kezka eta Udalariei eskatu diote hemen ere airearen eta uraren kalitatea neurtzeko eska diezaiotela Jaurlaritzari. "Orain arte eman dituzten datuak ez dira zehatzak eta ez dira osoak, Ermuan eta Eibarren agertu diren substantzia toxiko horiek ondo-ondoan dauden Elgoibar bezalako herrietan zenbateko eragina duten ez dutelako argitu", jaso du prentsa oharrean EHBilduk. Dioxina eta furano neurketek eta Ego eta Aixola erreketan antzeman dituzten substantziei egin diete erreferentzia. BARRENtik egindako galderari erantzunez, larritzeko arrazoirik ez dagoela esan du Ane Beitia alkateak eta "lasaitasun osoz" jokatzeko esan die herritarrei, larritzeko arrazoirik balego berehala ohararaziko luketela-eta.

Zenbait adituren ahotsa

Bi galderari erantzun nahian abiatu dugu reportajea: Zein irizpideren arabera mugatu dituzte badaezpadako neurriak Zaldibar, Ermua eta Eibarrera? Zerk ziurtatzen du Eibartik bost kilometro ekialderago airea garbi dagoela, edo gutxienez ohiko parametroetan dagoela? Osasun Sailera eta Euskal Herriko Unibertsitateko Medikuntza, Kimika eta Biologia fakultateetara jo dugu erantzun bila, eta lasaitasun mezua jaso dugu. Galdekatutako inork ez du izenabizenez hitz egin nahi izan, baina gaur-gaurkoz Elgoibarren ez dagoela kezkatzeko arrazoirik esan dute. Hala ere, "erabat ulergarria" egiten zaie herritarren kezka. Ertz askoko gaia dela azpimarratu dute eta zaila egiten zaiela hitz egitea, batez ere jendea kezkatuta dagoelako eta ez dutelako nahi kezka hori areagotzerik. Herritarrek informatzea derrigorra ikusten dute, baina hori, "halako egoera batean", administrazioak egin behar duela uste dute. Baina informatzerakoan, informazio zuzena ematea bezain garrantzitsua irizten diote "sasoian eta ondo" komunikatzeari, bestela zalantza handiagoa pizteko arriskua dagoelako. Horregatik, galdekatutakoan artean bada zehaztasun handiagoa hasieratik aplikatu behar izan zela uste duenik, bai eta unean-unean zeuden datuekin egoki jokatu dela uste duenik. Edozelan ere, Osasun Sailak egindako ohararazpenak "zentsuratuak eta egokiak" direla uste dute denek, eta lasaitasun mezua zabaldu dute. Esan dute egunotako eguraldiarekin ez dagoela larritzeko arrazoirik; kezkatuago egongo lira

tekeela konbustioak iraun bitartean inbertsio termikoko egun asko egongo balira jarraian, aire mugimendurik gabeko egun asko, baina ez dela kasua. Azpimarratu dute airean neurtutako dioxinen eta furanoen maila altuek ez dutela "berehalako arriskurik" eragiten osasunean, baina gogoetarako deia ere egin dute. Hala, Zaldibarkoak sortzen dugun hondakin kopuru handien eta zaborren kudeaketaren inguruan sakon hausnartzeko beharra azaleratu duela uste dute.

Osasun Sailaren erantzuna

Osasun Sailera ere egin dugu galdera -idatziz, eskatu bezala eta lehendik esana dutena berretsi dute: dioxina eta furanoak gai toxikoak direla, baina bakarrik epe luzera eta metatzen badira izan daitezkeela arriskutsuak. Gogorarazi dute, era berean, OME Osasunaren Mundu Erakundeak ez daukala ezarrita kaltegarritzat hartzeko erreferentziakoa kopururik aierako, baina zehaztasun printzipioari jarraituz hartu dituztela badaezpadako neurriak, harik eta datu berriak izan arte. Gomendioak herritar guztientzat direla zehaztu dute, baina arreta bereziki zaintzeko eskatu diete haurrentzat dauden emakumei eta haurrei, "halako substantziei sentiberagoak direlako". Hala ere, kalera irteteko eragozpenik ez dagoela esan dute. "Esan duguna da komeni dela denbora gutxiago egotea kalean edo zabortegiko kea iristen den lekuetan". Maskarak erabili beharrik ere ez dago. Are, esan dute egunotako mobilizazioetan eta ikusi diren maskarek ez dutela balio aire kutsatzaile gehienetatik babesteko.

Jakinarazi dute otsailaren 7an aire neurketak egiten hasi eta atebeteren barruan, atmosferan esekita dauden 180 substantzia kimiko eta materia-partikula neurtu zituztela eta ez zela anomaliarik agertu. Otsailaren 9an hartutako dioxina, furano eta PCB laginen azterketaren emaitzak otsailaren 14an jaso zituzten. Berandutzearen arrazoa ere eman dute: "Europar laborategi gutxitan aztertzen dituzte era honetako laginak, eta estatuan CSICen menpeko bi laborategitan bakarrik, eta egunak behar izaten dituzte azterketa egiteko. Unean-unean geneukan datuen berri eman dugu, eta ostiralera arte, aztertutako substantzia eta parametro guztiek ondo eman zuten. Dioxinen inguruko datuak izan genituenean berehala eman genuen emaitzen berri, eta neurtutako baloreak ohikoak baino askoz handiagoak zirenez, badaezpadako neurriak hartu genituen".

Uraren kalitateaz gain, airean amiantoa, konposatu organiko lurrunkorak (pisu molekular oso baxuko mikro-kutsatzaileak), hidrokarburo aromatiko poliziklikoak (suteetan sortzen diren partikulekin lotzen diren konposatuak dira eta herritarrek nabari duten usain hori sortzen dute) eta dioxina, furano eta PCBak neurtzen dituzte. Azkenekoen harira honakoa dio Osasun Sailak oharrean: "Ohikoa da industria-jarduera batzuetako isurketetan horrelako substantziak aurkitzea, hala nola sintesi-substantzia organikoen kutsatzaileetan, kontrolatu gabeko suteetan, bai eta garraioren ibilgailuen emisioetan eta tabako-kontsumoan ere. Litekeena da sua itzaltzen denean, maila altu horiek azkar jaitea, iturri nagusia desagertu egingo delako".

▶ AITOR OLAETXEA ZALDIBARKO LUIZIAN KALTETUETAKO BAT

“Egi erdiekin ari direla iruditzen zait, eta uste dut zor digutela egi osoa”

Otsailaren 6an Eitzagako zabortegia kraskatu eta jausi zenean etxean ziren Aitor Olaetxearen ama eta izeba bat. Zabortegiaren parez pare bizi dira, Eitzagako Oletxe baserrian, hondamendiaren ostean hustu zituzten bi baserrietako batean. 16:00ak aldean amildu zen zabortegia eta berehala aterarazi zituzten etxetik, eta senideen etxeetan aterpetu ziren. Aitor Olaetxea Mendaron bizi da gaur, eta haren ahotik jaso genuen martitzenean auzotarren egonezinaren berri.

◆ Nola jabetu zineten egoeraren larriaz?

Ama eta izeba telebista ikusten zeuden etxean zabortegia jausi zenean, eta momentuan ez ziren jabetu gertatutakoaz. AP-8 autobidea dago gure gainekaldean eta ohituta ere badaude zaratarra. Ermuko saihebidia egin zutenean panelak ere jarri zizkiguten autobidean, baina ez dakit ba. Kontua da gure ama eta izeko ez zirela ohartu gertatutakoaz, etxea husteko esanez joan zitzaizkien arte.

◆ Zer izan zen esan zizueten aurreneko gauza?

Etxetik berehala irteteko eta urik ez hartzeko. Hala ere, ordurako urik gabe geunden. Zabortegia eraiki aurretik autopistaren gaineko aldean dagoen iturburu batetik hartzen genuen guk ura etxean, baina zabortegia egin zutenean zabortegian bertan jarri zuten ur-biltegi batetik hasi zitzaizkigun ura ekartzen, gure iturburu kutsatzeko arriskua ikusten zutelako. Zabortegiarekin batera ur-biltegi hori ere amildu zen, baina, eta apurtu ziren hodiak eta enparauak ere, eta urik gabe gelditu ginen. Joan zen egunean jarri zituzten kaleko ura, Sallobente auzoan edaten duten ura, baina hala ere, baserrira ezin ginela sartu esan ziguten, eta etxetik kanpora daude gurasoak eta izeba. Aterperik gabe ez daude, baina etxetik atera zituztenean inork ez zien galdetu nora joanik zuten. Ortuko jenerorik ez jateko ere esan zuten. Guk geuk ez daukagu orturik

orain, eta usainik ere apenas hartzen dugun, zabortegia 300 metro gorago dagoelako eta haizeak gora daramalako keusaina. Zaborrak azpian hartzeko arriskua dago gurean. Hala esaten digute. Zabortegia mendi magal batean zegoen eta lurra ez da batere egonkorra. Euri handirik egin ezean ez dut uste jausiko denik, baina egia da lurra arrakalduta dagoela eta botako balu sendo arriskua handiagoa litzatekeela.

◆ Zelan bizi duzue egunotan gertatzen ari den guztia?

Inpotentzia handiarekin. Informazioa tantaka iritsi zaigu, eta ez dakigu etxera noiz bueltatu ahal izango garen ere. Kaltetu zuzenak gara, baina ez pentsa zuek baino gehiago dakigunik. Erantzukizunak eskatzen hasteko ere ez dakigu nori eskatu. Gure auzo honek asko sufritu du azkeneko urteetan. AP-8 autobidea egiteko lurrak kendu zitzaizkiguten, eraiki zuten Aixola urtegia goragoan, zabortegia ere bai eta azkena Ermuko saihebidia. Dena pasatu behar al da hemendik?. Eitzagakoak asko pasatakoak gara. Gure espazioa izugarri mugatu da azkeneko urteotan eta horren kontra ezin izan dugu ezer egin, administrazioak aukera daukalako lurrak desjabetzeko. Orain ere, baso zati bat galdu dugu hondamendi honetan eta ez dakigu zer gertatuko den. Lurpean gelditu diren bi langileak ateratzea da orain egin beharreko lehenengo gauza, baina jakingo al dugu noizbait zer gertatu den eta zer



gertatzen ari den? Egi erdiekin ari direla iruditzen zait eta uste dut zor digutela egi osoa. Ez gara gai hauetan jantziak, baina ez da erraza ematen diguten informazioa ulertzen. Kirolik ez egiteko esaten digute, baina 24 orduz hartzen dugu arnasa. Futbolariak ezin dute jokatu, baina gu geu hemen ari gara kalean lanean. Gurasoei ez diete etxera itzultzeko baimeunik eman zaborrak azpian hartzeko arriskua dagoelako, baina gure etxearen gaineko aldean dago AP-8a eta bihar amunetik zabalik dago. Egunean 25.000 auto pasatzen ei dira. Horiek ez al daude arriskuan? Gertatzen dena da AP-8k sekulako dirutza mugitzen duela eta diru hori ezin dela galdu. AP-8a zabaldu zuten arte ez zuten zabaldu zabortegian zer egon zitekeen ere. Bada adierazgarria.

Tokikomeko webguneetan 2019an gehien ikusitako edukien artean dago iaz Elgoibarren izan zen hilketari buruzko berria

Herri komunikabideetako webguneen kontsumoa neurtu du Tokikomek (Tokiko Komunikabideen elkarte), eta emandako datuen arabera, %36an hazi zen 2019an herri adizkarien webguneetako kontsumoa. Nazioarteko tendentzietan erreparatuta, euskarazko medio digitalen kontsumoa %19 handitu zen 2018tik 2019ra, Tokikomeko bazkideen webguneak hazi direnaren erdia, gutxi gorabehera, beraz, beldurrik gabe esan dezakegu toki komunikabideen edizio digitalek osatzen duten sarea oinarri-oinarritzko azpiegitura dela euskarazko edukien eguneroko kontsumoan. Tokikomeko webguneetan (30 agerkari) 36.380.205 orrialde erakutsi ziren guztira 2019an. Hilabeteko batez bestekoa hiru milioikoa izan zen, baina maiatzeko Udal Hauteskudeen eraginez hilabete horretan nabarmen igo ziren bisitak, eta 3,8 milioi orrialde bistaratu ziren gure medioetan. Abuztuan aldiz, beherakada izan zen udako oporren eraginez, eta 2,3 milioi orrialde bisitatu zituzten. BARRENI dagokionez, arazo bat izan genuen sisteman eta horren ondorioz 2018ko lehen lau hilabeteetako datuak galdu genituen. Beraz, hazkundearen konparazioa 2017ko datuekin egin dugu. Horren arabera, %66,56 handitu da kontsumoa gurean azken bi urteotan. 2019an, 717.069 orrialde bisitatu zituzten erabiltzaileek, eta bi urte lehenago, 430.523.



Erabiltzaileak

Erabiltzaile kopuruari dagokionez ere hazkunde nabarmena izan da. 2019an 399.025 erabiltzaile ibili dira batez beste hilero gure webguneetan, aurreko urtean baino %35 gehiago, eta bisita horien iraupena ere luzatu egin da, bi minutu pasatxora. Zehazki esanda, batez besteko bisiten iraupena 122 segundukoa da, aurreko urtean baino hiru segundo gehiago, hain zuzen ere. BARRENI datuei erreparatuta, %39,30 hazi da bisitarien kopurua azken bi urteotan. 2019an, 84.271 bisitari izan genituen, eta 2017an, aldiz, 60.498. Bisiten iraupenari dagokionez, bisiten iraupena %5,5 handitu da azken bi urteotan, eta gure erabiltzaileak 1:55 minutu egon ziren batez beste gure atariari begira.

Datu honi lotuta, errebote-tasak (webguneko orrialde bat ikusi eta alde egiten duen jendea) behera egin duela nabarmendu behar dugu. Tokikomeko medioetan puntu batean jaitsi da errebote-tasa, %64,8tik %63,6ra. BARRENI balio horien azpitik gabilta, eta gainera, azken bi urteetan %0,89 behera egin du gure errebote-tasak, 63,07tik 63,07ra.

Facebook eta sakelakoak

Euskarazko komunikabideak, eta zehazki tokikoak, ez daude nazioarteko joeretatik libre, eta webguneetako trafikoaren analisian joera berbera errepikatzen da. Hortaz, 2019ko bisiten %40 baino gehiago bilatzaileetatik iritsi ziren gure medioetara. Bigarren iturri nagusia Facebook izan zen iaz, eta bisiten laurdena baino gehiago Mark Zuckenbergaren sare sozialetik iritsi zen. Trafiko zuzena %21,6 izan zen, eta Twitterretik %7 iritsi zen. BARRENI dagokionez ere bilatzaileen bidez iritsi zitzaigun iaz trafikoaren gehiengoa, %35,8, zuzenean %32,8 eta sare sozialetatik %29,1. Azken hauen artean Facebook da nagusi, eta handik jaso genituen bisiten %89,38.

Era berean, sakelako telefonoa da gehien erabiltzen den gailua gure medioetara iristeko. Tokikomen kasuan bisitarien %71,43 sakelakotik konektatu ziren iaz, eta BARRENI ere erabiltzaileen %71,5 iritsi ziren sakelakotik.


2019ko albiste ikusienak

Webgune bakoitzean urtean gehien ikusi den edukia aztertu ostean, edukirik arrakastatsuenak gertakariekin loturikoak izan dira ondorioztatu dute. 2019an tokiko hedabideetako webguneetako bost albiste ikusien artean, laugarren lekuan ageri da *barren.eus* atarian eman genuen albiste bat, hain zuzen ere, Pablo Acuñaeren hilketaren albistea. Maiatzaren 11n izan zen, eta albiste horrek 14.000 ikustaldi baino gehiago izan zituen, bigarren albiste ikusienak halako bi. Tokikomeko medioetan ikusiena *Aiurri.eus* atariko albiste bat izan zen: Baltasar erregeak Andoaingo errege desfilean zabalduetako mezuak izan zuten oihartzunaren harira, Meltxor eta Gaspar erregeek idatzi zioten gutunari buruzko albistea.

San Bartolome parrokiako organoak 125 urte bete ditu, eta urteurrena ospatzeko meza berezia egingo dute gaur, 19:00etan. Akilino Amezuak (Azpeitia, 1947-1912) egin zuen organoa, eta 1895eko otsailaren 21eko mezan estreinatu zuten. Ildefonso Lizarriturri izan zen organo hau jo zuen lehenengoa, eta gerora beste hainbat organo-jole ezagutu ditu. Gaur egun Juan Luis Agirre eibartarra da elizkizunetan organoa jotzeko ardura duena.

- AINHOA ANDONEGI -

Mende bat eta laurden, 125 urte, bete dira gaur San Bartolome parrokiako organoa estreinatu zutenetik. Pello Arrietaren testuetan aurkitu dugun informazioaren arabera, aurrik beste bi organo eduki zituen Kalegoengo parrokiak: 1733an Oñatiko Jose Antonio Balzategik eginikoa izan zen lehenengoa, eta ehun urte pasa iraun zuten, baina 1856an Gipuzkoako Batzar Nagusiak Elgoibarren egin behar zituzten, eta batzarra egiteaz gain, meza ere izaten zuten ordezkari politikoek. Ordurako organoa behin baino gehiagotan konpondua zuten, eta arduradunei iruditu zitzaizen ez zegoela politikarien mezan erabiltzeko moduan. Batzar Nagusien ospakizuna arrazoi nahikoa iruditu zitzaizen organo hura berri beharrez, berria ekartzeko. Azkoitiko Frantzisko Izagirre organogilearekin lotu zuten organo berria egiteko kontratua, 11.000 errealean truke. Organo hori ere hondatuz joan zen, eta 1893ko uztailaren 24an Frantzisko Sustaeta parrokiak 10.000 pezetako diru-laguntza eskatu zion Udalari, organo berria eraikitzeko. Organo berriak 16.000 pezeta balio zituen, eta, Udalak emandakoaz gain, Iriondo-Etxeberria anaiek jarri zuten 6.000 pezeta gehiagorekin erosi zuten. Elgoibarko gizartean pisu handia zeukaten Iriondo Etxeberria anaiek: Gastiezko katedraleko kalonjea izan zen Frantzisko, eta Elgoibarko alkate izan zen Juan Luis 18 urtez, eta baita zinegotzi ere. Hortaz, behin dirua batuta, organo-egilea aurkeratzea besterik ez zen falta: Akilino



125 urte parrokiari soinua jartzen

Amezua organo-egile handiarekin hitzartu zuten, eta 1895erako amaitu zituen lanak. Izen handiko organo egilea izan da Amezua, eta Euskal Herrian ez ezik Espainian eta nazioartean ere eraiki zituen organoak.

Otsailaren 21eko mezan estreinatu zuten Elgoibarko organoa, Pedro Maria Arrillaga Arizaga alkatea eta udalbatza osoa han zirela. Ildefonso Lizarriturri izan zen estreinaldi hartan organo-jolea. Gerora, Ignacio Bereziartua, Miguel Forcada, Jose Antonio Ezeiza, Jose Mari Iztueta eta Jesus Mari Mujika ere izan ziren Elgoibarko parrokiako organo-joleak, eta azkenak Felix Lodoso eta Julian Iriondo izan ziren. Gaur egun Juan Luis

Agirre eibartarra da San Bartolome parrokiako organo-jolea. Bere esanetan, Elgoibarko organoa ikusgarria da. Haizezko instrumentua da organoa, eta tekla bakoitzeko hodi bat dauka. Eskuekin jotzeko bi teklatu ditu, eta hankekin joteko beste bat. Hodi batzuk bertikalak dira, baina beste batzuk horizontalean ditu, tronpetak bezala ezagutzen direnak. 1700. urte inguruan Eizagaetxeberrira apaiz Frantziskotar eibartarrak patentatu zuen tronpeten sistema hau, eta horri esker soinuan asko irabazten du instrumentuak. 125 urteren ostean sitsak hartu ditu hainbat hodi, baina "miraria" da mende eta erdi geroago organoa horrela mantentzea.



▶ JUAN LUIS AGIRRE PARROKIAKO ORGANO-JOLEA

Juan Luis Agirrek (Eibar, 1946) bihotzez eta pasioz jotzen du organoa. Horixe du afizioa, eta Debabarreneko eta baita Bizkaiko zenbait parrokiatan aritzen da organo-jole lanetan. Gaur iluntzean ere joko ditu hainbat pieza, Elgoibarko organoaren 125. urteurreneko meza berezian.

“Musika buruan daukat eta bihotzetik jotzen dut, sentimenduz, partiturarik gabe”

♦ Zein ezaugarri ditu San Bartolome parrokiako organoak?

Amezua maisu handiak 1895ean eginiko organoa da, eta gaur bertan beteko ditu 125 urte estreinatu zenetik. Haizezko instrumentua da. Hodiekin egina dago, tronpetak ere baditu eta joteko oso goxoa da. 56 tekla dauzka teklatu bakoitzak, eta tekla bakoitzeko hodi bat. Eskuekin jotzen dira goiko bi teklatuak, eta bajuak hankekin. Koordinazio handia behar da burua, eskuak eta oinak ondo bideratzeko.

♦ Zein egoeratan dago 125 urte bete berri dituen organoa?

Miraria da gaur egunera horrela ailegatu izana. Mantenu beharra ere badauka, eta aurrekontua eskatuta dago, baina soinu aldetik oso ondo dago, ia-ia lehenengo egunean bezalaxe. Hodi batzuk okertuta daude, eta beste batzuk sitsak hartu ditu, baina orokorrean ez dago gaizki.

♦ Noiz eta nola ikasi zenuen zure organoa jotzen?

24 urterekin hasi nintzen organoa jotzen, Eibarko San Andres elizan. Apiazak instrumentua lagatzen zidan nahi beste joteko, baina baldintza batekin; hiletetan organo-jole lanak egitea. Halaxe ikasi nuen, dena nire kabuz, orduak eta orduak sartuz. Nik ez daukat apenas musika ikasketarik. Bi urtez ikasi nuen solfeo eta beste bi urtez pianoa, baina beste guztia nik neuk bakarrik ikasi nuen. Hau nire afizioa izan da betidanik, afizio handia, bestela ez dago horrela ikasterik. Ni

lanbidez ez naiz musikaria, makina erremintan egin nuen lan 47 urtez, erretiroa hartu nuen arte.

♦ Zer sentitzen duzu organoa jotean?

Momentuaren arabera sentimendua desberdina da. Ez da gauza bera hileta baten jotea edo elizkizun alai batean. Niretzat organoa erreminta bat da, tresna. Musika buruan daukat, eta bihotzetik jotzen dut organoa, sentimenduz, goxotasunez, partiturarik gabe. Burutik atzamarretara eramaten dut musika. Partiturarekin zuzentasun osoz jo daitezke piezak, baina papelak ez du goxotasunik ematen. Papela hotza da, eta niri goxotasuna gustatzen zait.

♦ Zenbat pieza daukazu buruan gordeta?

800 bat bai. Hango eta hemengo elizetan ibiltzen naiz ni igeltseroa bezala, zuloak tapatzen. Mutrikun, Itzianren, Mallabin... eta eliza bakoitzak bere kapritxoak dauzka. Kanta desberdinak eskatzen dituzte herri bakoitzean, eta denak buruz ikasten ditut. C.D. Elgoibarren ereserkia ere badakit, eta futbolari izandakoren bat hil izan denean jo izan dut. Garai batean, gainera, ezkontzetan eta jotzen ibili nintzen orkestra batekin, eta orduko kantuak ere oraindik gogoan dauzkat.

♦ Noiztik zara Elgoibarko organo jolea?

Bost bat urte izango dira honezkero. Aurretik Altzolan jotzen nuen nik, baina Elgoibarren hamar hilabeteko epean bi organo-jole hil ziren, eta organo jole gabe

geratu zen parrokia. Felix Lodoso hil zen San Inazio egunez, eta hurrengo urteko urtarrilean Julian Iriondo hil zen. Haiiek biek batera jardun zuten organo-jole lanetan, hilerio txandaka. Lodoso hil zenean Julian geratu zen arduradun, eta hura hil zenean esan zidaten niri. Baina sekretu bat kontatu behar dut: bi horiek nirekin egoten dira elizkizun guztietan. Bakoitzaren erretratu bana daukat, eta organoaren hauspoaren gainean jartzen ditut. Nik teklak jo bitartean, hauspoan gora eta behera aritzen dira Lodoso eta Iriondo. Elgoibarrek, beraz, hiru organo jole dauzka, bi modu pasiboan eta bat aktiboan.

♦ Zein da parrokiako organo jolearen zeregina?

Elizkizunetan organoa jotea da berez nire lana. Ia elizkizun guztietan jotzen da organoa, baina bereziki, hiletetan. Organoak asko jantzen du meza. Horrez gain, mantentze lanak ere egin behar izaten dizkiot tarteka organoari. Bereziartua zena ere bera ibiltzen zen organoa konpontzen. Imanol Kondek kontatu izan dit bera umea zela Bereziartuari laguntzen ziola organoa afinatzen. Konde ikaslea zen orduan, 9 urteko mutil koskorra, eta Bereziartua zuen maisu. Kondek tekla bat jotzen zuen, eta Bereziartua tekla hari zegokion hodia konpontzen egoten zen atzean.

♦ Eta, noiz arte organo-jole?

Aurrekoek hil arte jardun dute, eta ni ere aurrera noa adinean. Elgoibarri organo-jolea falta zaio. Nik uste dut Musika Eskolak prestatu beharko lituzkeela organo-joleak. 125. urteurrena aitzaki polita izan daiteke ikasleei organoa erakutsi eta zaletasuna sortzeko. Pianoa jotea baino zailagoa da organoa jotea nire ustez, baina pianoa jotzen dakienak, erraz ikasiko du hau ere.

Dena prest dago inauterietarako

Iritsi dira mozorrotzeko egunak, eta antolatzaileek dena prest dute aurtengo inauteriak ospatzeko. Elgoibarko Ludotekan atzo hasi ziren karroza prestatzeko lanetan eta gaur irtengo dira kalera Ludotekako umeak mozorrotuta. Elgoibar Ikastolakoek ere gaur ospatuko dute Euskal Inauteria. 15:15ean irtengo dira umeak ikastolatik, eta Kalegoen plazara arte joango dira kalejiran, han dantzaldia egingo. (Euria egiten badu ikastolan bertan geratuko dira). Sinuösek ere ez du hutsik egingo inauterietako zitan, eta kontzertu berezia eskainiko die bere jarraitzaileei. Zomorro mozorro izena jarri diote kontzertuari eta sorpresak iragarri dituzte. 23:00etan izango da, Kultur Etxeko so-toan.

Egun handia, bihar

Inauterietako egun handia bihar izango da, Elgoibarren eta baita Mendaron ere. Ume, gazte eta helduak mozorrotuta irtengo dira kalera, eta han eta hemen



izango dute non aukeratu. Elgoibarren Atxutxikaraokea eta koreografia dantzaldia prestatu dute arratsalderako, eta iluntzean Mautitxa txarangarekin mozorroen kalejira egingo dute. Gauerditik goizaldera arte, berriz, Mugi Panderoa taldearekin erromeria egongo da Maalako parkean.

Mendaron ere ez da festa girorik faltako. Eguerdian Bizi Poza txarangakoak irtengo dira kalejiran, eta haien bueltan ibiliko dira herritarrak mozorrotuta. Arra-

tsaldean txokolate jana egingo dute eta iluntzean, Basajaun taldearean dantzaldia egingo da, frontoian.

Martitzenean iritsiko da inauterien azkena. Elgoibarren 16:45erako jarri dute mozorroen bilgunerako hitzordua. Umeentzako ikuskizuna egongo da, eta Mautitxa txaranga ere ibiliko da kalean. Mendaron ere, musika eta animazio ikuskizuna antolatu dute martitzenerako. Inauterietako egitarau guztia agendan duzue.

Kale Kantariak kantaldia eskainiko dute barikuan, San Lazaro egoitzan

Elgoibarko Kale Kantariak kantaldia eskainiko dute gaur zortzi San Lazaro egoitzan, 10:30etik aurrera. Jakinarazi dute aurten ez dutela bazkaririk egingo emanaldiaren ostean, eta talde-bazkaria martxoan egingo dutela, hileko azken zapatuko feria egunean.

Hamahiru familiak hartu zuten parte buruarinen tailerren

Elgoibarko Izarrak antolatuta, buruarinen tailerra egin zuten joan zen zapatuan, Elgoibarko Udal Ludotekan. HH4tik LH2ra arteko seme-alabak dituzten familiei zuzendutako saioa zen, eta hamahiru familiak hartu zuten parte. Buruarinak enpresako profesionalek gidatu zuten saioa. Ume bakoitzak aurrez aukeratu zuen zein buruarin egin nahi zuen, eta bi orduko ekinaldian amaitu zituzten lanak. Piratak, deabruak eta bikingoak egin zituzten, besteak beste.



Testurak izeneko disko berria prestatzen ari da Ander Mujika, Buff anaiekin



Napoka Iria desegin ondoren hainbat proiektutan ibili da Ander Mujika musikari elgoibartarra, eta orain proiektu berri bat dauka eskuartean. 2017 eta 2019 artean egindako zirriborroen artean garbiketa egin, txukundu, landu eta hortik ó soinu pieza eta kantu bat bildu zituen. Felix Buff (Willis Drummond, Joseba Irazoki eta lagunak, Botibol...) musikari eta lagunarengana jo zuen bere egitasmo berria aurkezteko eta hark eman dizkio bestelako geruzak eta soinua proiektuari. Bien artean azken ukituak eman eta Johannes Buffi (Dalek, Zombie Zombie, Thurston Moore...) pasatu zieten pieza bilduma. Hark soinua borobildu eta nahasketa txukundu zuen. Azkenik Maialen Belaustegik (Dodoma) gardenkien proiektore bat baliatuz diskoaren inguruko irudi guztia landu zuen. Hasieratik argi ikusi dute soinua eta irudi geruzez baliatuko zirela emozioen munduan punta batetik bestera joateko. Testurak sortu zituztela konturatu ziren, mihise baten gainean soinua koloreak gehituz eta aldatuz. *Testura* izeneko diskoa martxoan kaleratuko dute Forbidden Colours zigiluaren eskutik. Zuzenekoetan horrela arituko dira, diskoan bezala, Johannes, Felix eta Ander soinua lantzen, eta Maialen proiektorearekin irudia eraikitzen. Hiru aurkezpen saio iragarri dituzte momentuz: Azpeitiko Dinamo Sormen Gunean izango da lehenengoa martxoaren 26an; martxoaren 29an Miarrizteko Pioche aretoan joko dute, eta apirilaren 23an Berrizko kultur etxean.

Ipuin tailerra, hilaren 26an, liburutegian

Gotzon Garate Udal Liburutegiak ipuinen tailerra antolatu du hilaren 26rako. Itziar Zubizarretak emango du saioa. Idazlea da, Irakasle Eskolako irakasle izandakoa eta *Bularretik Mintzora* umeengan irakurzaletasuna sustatzeko egitasmoaren sortzailea. 2tik 9 urtera arteko umeen gurasoen eta hezitzaileen-tzako tailerra izango da, eta besteak beste, adinez adin haur literaturak aurkezten dituen gai nagusien jarraipena egingo du. Plazak mugatuak dira, eta aurrez izena emateko eskatu dute antolatzaileek. Izena emateko: 943 743 525/ 688 710 138 (Watsapp) / liburutegia@elgoibar.eus.

Honekin batera, irakurzaletasuna sustatzeko beste bi ekimen egingo dituzte datorren astean liburutegian: Astelehenean, Irati Elorrietaren Neguko argia liburua landuko dute Jasone Osororekin Epeletan literatur saioan, eta martitzenean, berriz, Ignacio Aldecoaren *Parte de una historia* liburuari buruz hitz egingo dute, Haizeak antolatutako saioan.

Idazlan lehiaketan parte hartzeko epea martxoaren 16ra arte

Ikasleen artean euskaraz idazteko trebetasuna sustatzeko asmoz, idazlan lehiaketa antolatu du Elgoibarko Udalak, hirugarren urtez. Elgoibarko ikastetxeetan ikasten dabilen 8-18 urte bitarteko ikasleentzat edota, Elgoibarren erroldatuta egonik, beste nonbait irakaskuntza ertarretan ikasten dabilen adin berekoek hartu dezakete parte. Gaia librekoa izango da, baina testuak euskaraz idatzita egon beharko du. Sari moduan, 50 € eta 120 € bitarteko 26 bono banatuko dituzte, herriko dendetan gatzatzeko. Martxoaren 16ra arte dago izena emateko epea. Ikastetxean bertan edo Herritarren Arreta Bulegoan entregatu behar dira lanak.

Eulali Moreno ipuin kontalari elgoibartarraren ikuskizuna gaur, Aita Agirre kultur kafean

Amalurra ipuinkontalaria du izen artistikoa, baina horren atzean Eulali Moreno elgoibartarra dago. Urteak dira Elgoibartik kanpora bizi dela eta gaur arratsaldean sorterrira itzuliko da, ipuinak kontatzera. Amets eta hegan egiteko ipuinak kontatuko ditu, hezkidetzara oinarri hartuta. Feminismoaren gaia ere ez du ahaztuko, eta bere ipuinetan emakume indartsu eta ausartak izango dira protagonista.

Aita Agirre kultur kafean izango da saioa, 18:00etatik aurrera.



Jon Garate eta Ainhoa Lendinez saritu dituzte Euskal Mendizaletasunaren Galan



Argazkiak.: Ekaitz Anda



Euskal Mendizale Federazioaren eta *Pyrenaica*-ren sariak banatu zituzten otsailaren 14an Euskal Mendizaletasunaren Galaren 24. ekitaldian. Amurrion egin zuten ekitaldian, hitzaldi eta kultur ekitaldiez gainera, sari banaketa ekitaldiak izan zuen protagonismoa, sari ugari banatu zituztelako. Batetik, Euskal Mendizale Federazioak (EMF) 2019ko mendiko kirolari onenen garaikurrak banatu zituen; eta, bestetik, *Pyrenaica* aldizkariak urteko sariak banatu zituen. Azken horietan saritu zituzten bi elgoibartar. Ainhoa Lendinezek *Pyrenaica* aldizkariaren blogean bisita gehien izan dituen sarrerari ematen dioten saria jaso zuen, *Monte Rosa Skymarathon* izeneko artikulugatik. Gogoratu *barren.eus* komunitatean ere irakur ditzakezuela Lendinezen idatziak. Mendi artikuluen lehiaketan, berriz, bigarren saria eskuratu zuen Jon Garate elgoibartarrak, *Patagonia. Aguja Guillaumet eta Mojón Rojo* izeneko lanagatik. Xabi Mujikak irabazi zuen lehen saria *Aizkorri neguan* artikulurengatik..

Natura eta zientzia jardunaldietako azken saioa

Pirinioetako glaziarren bilakaera eta egoerari buruzko hitzaldia emango du Eñaut Izagirre glaziologo elgoibartarrak datorren eguaztenean, otsailaren 26an, Kultur Etxeko hitzaldi gelan, 19:30ean. Morkaikok antolatu duen natura eta zientzia jardunaldiei amaiera emango die Izagirreren solasaldiak. EHUko Geodinamika Saileko kidea izateaz gainera, klima aldaketa ikergai duen Basque Centre for Climate Change (BCCC-) ikerketa zentrokidea da zientzilari elgoibartarra.



Martxoaren 15ean izango da Morkaikoren hurrengo mendi irteera, Hernio mendira

Morkaiko mendi taldeak ikastetxeekin elkarlanean antolatzen dituen mendi irteeretako bat egin zuten joan den otsailaren 16an. Urregarai mendira joatea zuten hasierako asmoa, baina haizeak gogor jo zuen egun horretan Euskal Herri osoan, eta bereziki mendi goietan. Hori dela-eta, irteera aldatzea erabaki zuten eta Elgoibar inguruan gelditu ziren. Azkarateko bide zaharretik abiatu eta Urruzunon barrena ibili ostean, atzera herrira bueltatu ziren, bazkalordurako. Guztira 35 umek eta beste horrenbeste nagusik hartu zuten parte Elgoibarko mendiak hobeto ezagutzeko baliatu zuten irteeran. Hurrengo mendi irteera martxoaren 15ean izango da, Hernio mendira (1.078 metro). Interesatuak Herri Eskolan zein Ikastolan eman behar dute izena.



Zumba saio solidarioan dantzariz bete zen Olaizaga kiroldegia

Minbizia duten gaixoei eta familiartekoei laguntza ematen dien Gipuzkoako Asgicer elkartearen aldeko zumba saioa egin zuten domekan Olaizaga kiroldegian. Jhonson Cruz zumba irakasleak zuzendu zuen saioa, beste zazpi zumba irakasleren laguntzarekin. Elena Rodriguez elgoibarra izan zen zazpi irakasle horietako bat eta pozik agertu da saioak



izan zuen erantzunarekin eta Olaizagako kantxan bizi izandakoarekin. "Urduri geunden nola irtengo zen, baina giro bikaina egon zen saioan eta parte-hartzaile guztiek lortu zuten saioa bukatzea". Elgoibarko eta inguruetako herrietatik etorritako lagunak hartu zuten parte, gehienak emakumeak. Asgicer elkartearen aldeko kamisetak jantzita aritu ziren dantzan, izan ere, izena ematerakoan kamiseta erosteko aukera eman zuten antolatzaileek eta kamisetak saltzetik lortutako dirua Asgicerri emango diote. Guztira ehun lagun inguruk parte hartu zuten eta mila euro pasatxo batu zituzten. Duela bi urte sortu zuten elkarte eta era honetako ekimenarekin elkarte ezagutzera ematea eta minbizia ikertzeko dirua batzea bilatzen dute. Asgicerreko arduradunek eskerrak eman dizkiete Zumba saioan parte hartu zuten lagun eta irakasle guztiei, eta baita Elgoibarko Udal Kirol Patronatuari ere, kiroldegia lagatzeagatik.



Pilota Eguna martxoaren 14an egingo dute

Elgoibar Ikastolak jakinarazi du martxoaren 14an egingo dutela aurtengo Pilota Eguna. Ikastolako 6 eta 13 urte bitarteko neska-mutilek hartzen dute parte gaztetxoaren artean pilota eta kirola sustatzeko txapelketa honetan, eta Kalegoen plazan jokatuko dituzte finalak (euria egingo balu, Ikastolako frontoian). Guztira hamahiru partida jokatuko dituzte finalean, 12 tantora.

Osasun gida Osasun gida Osasun gida

aldaz
hortz klinikak
RPS233/13
Tel.: 943 366 377
San Bartolome, 22
20870 Elgoibar

NATUR HOUSE
Ainara Iriondo Ansola
GIZA ELUKADURAN ETA
DIETETIKAN DIPLOMATUA
Terribio Etxebarria, 22
Eibar
677 551 850

fisioSmás
Fisioterapia aurreratua eta
Kirol Berregokitzea
Trenbide kalea, 13
943 740 191 / 907 903 698
www.fisio-mas.com
IUPK 17719

RPS 183/12
Uzuri
optika audio
Elgoibar
Tel.: 943 740 359
Deba
Tel.: 943 192 192

FUB Fernando Urizar Barandiaran
R.P.S.: 32/17
Medikuntzan doktorea
Psikiatrian espezialista
Psikoterapia psikoanalitikoa
Psikosomatika
Ego-Gain kalea, 18-1A (Eibar)
Bailen kalea, 9. 1. ezk. (Bilbo)
furizarf@yahoo.com
615 715 404

leku eder
hortz klinika
RPS 171/12
Elena Herrero Lobo
Aita Agirre Eparantza, 5
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)
Tel.: 943 530 053

federópticos
ikus
RPS 65/07
San Bartolome, 10
Tel.: 943 743 734

RPS 271/12
ainhoa
fisioterapia
Jausoro plaza, 6 behea
Elgoibar
943 531 953
669 565 745

Osasun gida Osasun gida Osasun gida

LANA.....
Eskaerak

Adinekoak zainduko nituzke, orduka edo etxeko langile moduan. Esperientzia eta erreferentzia onak ditut
 ☎ 632 330 597

Adinekoak zainduko nituzke, orduka edo etxeko langile moduan. Ospitalean zaintza lanak egiteko ere prest. ☎ 643 856 598

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke, arratsalde. Esperientziaduna. Ospitalean edo asteburuetan interna moduan egoteko prest.
 ☎ 688 959 575

Adinekoak zaintzeko prest nago. Gavez ere bai.
 ☎ 602 490 595 / 612 204 490

Adinekoak zaintzen egingo nuke lanak. Etxeko garbiketarik zein sukaldari lanak egiteko ere prest nago. Etxeko langile moduan aritzeko prest nago.
 ☎ 632 344 327

Orduka lan egiteko prest nago. Esperientzia handia daukat adinekoak eta umeak zaintzen eta baita garbiketarik lanetan ere.
 ☎ 602 367 837

Garbiketarik lanak egiteko eta pertsona nagusiak zaintzeko prest nago. Esperientzia.
 ☎ 631 114 125

Adinekoak zein umeak zaintzeko eta garbiketarik lanak egiteko prest nago. Esperientzia handia. Berehala hasteko moduan. ☎ 632 415 374

Adinekoak zaintzeko eta garbiketarik lanak egiteko prest nago. Orduka. ☎ 655 094 780

Adinekoak zaintzeko eta garbiketarik egiteko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan.
 ☎ 641 821 288

Adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka.
 ☎ 611 306 391

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketarik egiteko prest nago. Esperientzia daukat.
 ☎ 685 386 485

Adinekoak zaintzeko edo garbiketarik egiteko prest nago. Esperientzia daukat.
 ☎ 631 489 128

Adinekoak zaintzeko edo garbiketarik egiteko prest nago. Esperientzia daukat.
 ☎ 638 963 048

Adinekoak zaintzeko edo tabernan lan egiteko prest nago. Esperientzia daukat.
 ☎ 658 856 500

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan. Esperientzia daukat.
 ☎ 632 729 261

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan. Esperientzia daukat.
 ☎ 632 992 730

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketarik lanak egiteko prest nago.
 ☎ 612 493 913

Adinekoak zaintzeko eta baserriko lanak egiteko prest nago. Esperientzia daukat.
 ☎ 631 820 135

Adinekoak zaintzeko eta garbiketarik lanak egiteko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan.
 ☎ 632 354 511

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke. Esperientzia daukat.
 ☎ 612 257 146

Adinekoak zainduko nituzke. Esperientzia daukat.
 ☎ 688 219 057

Zerbitzari edo harrera lanak egiteko prest nago.
 ☎ 671 246 762

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia eta beharrezko titulazioa ditut.
 ☎ 626 407 923

Etxeko lanak egiteko, arropa lizitzeko, adinekoak edo umeak zaintzeko eta beste edozein lan egiteko prest nago. Hiru urteko eskarmentua daukat.
 ☎ 688 712 075

Adinekoak edo gaixoak zaintzeko prest nago. Euskalduna naiz. ☎ 617 571 210

Eskaintzak

DBH3ko ikasle bati eskola partikularrik emateko pertsona bat behar dugu.
 ☎ 617 386 198


Heldu bati euskara irakasteko irakasle partikularrik behar da. ☎ 650 601 301 (Victor)

GARAJEAK.....

Garaje itxia alokatzen dut Jausoro plazan, udallexetik gertu. Oinezkoentzako sarbidea dauka.
 ☎ 672 422 237

BESTELAKOAK.....

Offiprix markako sei mahaiko mahai multzoa salgai. Oso egoera onean. 600 euro.
 ☎ 688 634 044



Erretratu zahar batzuk topatu ditugu San Roke kalean. Udaltzaingoa utzi ditugu.



Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas
 Instituto Vasco de Administradores Locales Autónomos



ROSA Ma PINTADO

Etxaldean Administrazio-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Duela gutxi, eraikin baten beheko solairuan dagoen etxebizitza bat erosi dut. Ez dauka ataritik sarrerarik, kaletik dauka sarrera independentea. Teilatuko ganbaran trastelekuak eraikitzea pentsatzen ari dira bizilagunak. Nire eskrituren arabera, elementu komun gisa deskribatzen dira eraikinaren estalkia, antena kolektiboa, kontagailuen gela eta postontziak. Gainerakoetan, araudi orokorrera jotzen da. Jakin nahi nuke ea, transkribatutakoaren arabera eta kontuan hartuta ganbara hori gaur egun zatitu gabe eta erabili gabe dagoela eta inori bereziki egotzi gabe, elementu komuntzat hartu behar den. Gainerako jabeek aurreratu didate ez dudala trastelekuen banaketan parte hartzeko eskubiderik, ataritik sarbidea dutenek soilik dutelako haietarako eskubidea.

Ganbara higiezinaren elementu komuna da, eta haren gainean ataritik sarbidea duten bizilagunen eskubide bera duzu.

ONDORIOA. Elementu komun horretan aldaketa eta egoitzapen-obra egiteko, zure baimena beharrezkoa da, gainerako etxejabeena bezalaxe. Beraz, lehenik eta behin, adierazi behar duzu ados zaudela egin nahi diren aldaketa eta obra horiekin, eta, gainera, gastu horretan eta gunearen berrantolaketan parte hartu behar duzu.



AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
 San Bartolome, 2



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeke bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Luken**, ostiral-rean 2 urte egin zenituelako. Muxu handi bat familia-koen eta bereziki, Telmoren partez.



Zorionak, **marimatraka!** Astelehe-nean 2 urte handi. Muxu handi bat, **Irati**, etxekoen eta bereziki, Eireren partez.



Zorionak, **txipiron!** Ondo pasa zure eguna. Familiako guztien eta bereziki, Noaren partez. 11 mila muxu.



Zorionak, **Ibai**, asteazkenean 6 urte bete zenituelako. Muxu handi bat etxekoen eta bereziki, Ane, Jare, Naia, Arotz eta anaia Lierren partez.



Zorionak, **Helenka!** Gure etxeko txikiak 8 urte potalo bete ditu! Muxu handi bat, **saltsera!**



Hodei, txapel-dun, zorionak! Ilgandean 5 urte! Oso ondo pasa! Muxu handi bat etxekoen eta bereziki, Nahiaren partez.



Zorionak, **Nikole**, asteartean 6 urte egin zenituelako. Etxekoen, eta bereziki, Enekoren partez.



Ongi etorri gure artera, **Idoia**. Etxekoen eta bereziki, neba Igor eta lehengusu Mikel eta Nerearen partez.

Erretratu bakarreko agurra: 4'50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

Jon Aranao
Guillermo Torres

Elgoibar
Albaitaritza

San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel.: 943 740 704 - 639 047 337
Asteleheneratik ostiralareraino: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30
Larunbata: 11:00 - 13:00

Inoiz ere ezin izango duzue.
Dena ordua hartzeko.

PINTURA ETA DEKORAZIOA
CORDON VILARCHAO
cordonvilarchao@telefonica.net
San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26
943 740 570 / 636 98 61 62

★ IDAZMAKINEN SALMENTA
ETA KONPONKETA
★ MULTIKOPISTAK
★ FOTOKOPIADORAK
★ ERLOJU INDUSTRIALAK
★ MARRAZKETA
MATERIALA
★ INFORMATIKA
★ FAX

MEKANOSA
Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

**LG 55UM7000PLA
TELEBISTA**

55'

479 €

- Ultra HD TV 4K, adimen artifizialarekin
- 10 biteko Quad Core prozesadorea
- ULTRA Surround soinua
- Smart TV 4K
- Smart TV webOS 4.5
- SmartTV 4K

MILARBIRE
Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es
Produktuak agortuta

21 BARIKUA

15:15 Ikastolako Euskal Inauteria. Ikastolatik Kalegoen plazara egingo dute kalejira. (Euria egiten bada, Ikastolan bertan egingo dute).

18:00 Ipuin kontalaria: Amalurra. Aita Agirre kultur kafean.

21:30 Bideo foruma: 'Wonder woman y el profesor Marston'. Haizeak antolatuta, Loredi Salegik gidatuko du saioa. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

23:00 Sinuöseren inauterietako kontzertua. Kultur Etxeko sotoan.

24 ASTELEHENA

18:00 Emakumeentzako jabekuntza tailerra: 'Maitemindu zeure buruaz... eta ondoren, nahi duzunaz'. Berdintasun Sailak antolatuta, Loredi Salegik gidatuko du saioa. Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Sarrera doan.

19:00 Epeletan literatur solasaldia: Irati Elorrietaren 'Neguko argiak'. Gotzon Garate Udal liburutegian.

25 MARTITZENA

18:00 Literatur tailerra: Ignacio Aldecoaren 'Parte de una historia'. Haizeak antolatuta, Gotzon Garate Udal Liburutegian.

18:30 Alkoholismoak familian duen eraginari buruzko hitzaldia. Mendaroko udaletxean.

26 EGUAZTENA

18:00 Tailerra: Ipuinek haurren garapenean duten garrantzia. Itziar Zubizarretak emango du, gurasoentzat eta irakasleentzat. Gotzon Garate Udal Liburutegian.

19:30 Natura eta Zientzia Jardunaldiak: 'Pirinioetako glaziarren bilakaera eta egoera'. Morkaikok antolatuta, Eñaut Izagirrek emango du saioa. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

29 BARIKUA

10:30 Kale Kantarien kantaldia. San Lazaro egoitzan abestuko dute.



INAUTERIAK 2020 Elgoibar

21 BARIKUA

15:15 Ikastolak antolatuta, Euskal Inauteria. Kalejiran irtengo dira Ikastolatik Kalegoen plazara. (Euria bada, Ikastolan bertan egingo dute).

17:00 Ludotekako haurren kalejira, karroza eta guzti. Ludotekatik Kalegoen plazara.

23:00 Sinuöseren inauterietako kontzertua. Kultur Etxeko sotoan, doan.

22 ZAPATUA

15:00 Inauterietako makillaje artistikoa. Gaztelekuan.

18:00 Atxutxikaraokea eta koreografiak. 2-12 urte bitarteko haurrentzako saioa, Maalako parkean. Atxutxiamaikak antolatuta.

19:30 Mozorro eta karrozen desfilea, Mautitxa txarangarekin eta erraldoi, buruhandi eta zezenzikletekin. Maalako parketik Kalegoen plazara.

00:00 Erromeria, Mugi panderoa taldearekin. Maalako parkean.

23 DOMEKA

18:00 Dantzaldia, Eguren orkestrarekin. Jubilatuen Biltokian.

25 MARTITZENA

16:45 Mozorroen elkartzea, Kalegoen plazan.

17:00 *Kantu Kolore* haur berbena. *Honolulu*. Kalegoen plazan. Euria eginez gero, Maalako parkean.

18:00 Eguren orkestrarekin dantzaldia eta mozorro lehiaketa, Jubilatuen Biltokian.

18:15 Mautitxa txarangaren kalejira. Erraldoi, buruhandi eta zezenzikletekin.



INAUTERIAK 2020 Mendaro

21 BARIKUA

15:15 Jaialdia ikastolan.

22 ZAPATUA

12:30 Bizi Poza txarangarekin kalejira.

17:30 Diskoteka, DJ Porrurekin. Frontoian.

18:30 Txokolatada. Frontoian.

23:00 Basajaun taldearen dantzaldia. Frontoian.

25 MARTITZENA

17:00 *Gaur jaia* animazio eta musika ikuskizuna. Frontoian.



Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK		Egunez: 09:00-22:00		Iluntzean: 20:00-22:00		Larunbatak: 9:00-14:00 (*)	
21 BARIXAKUA	22 ZAPATUA	23 DOMEKA	24 ASTELEHENA	25 MARTITZENA	26 EGUAZTENA	27 EGUENA	28 BARIXAKUA
Egunez Garitaonandia	Egunez Arriola	Egunez Arriola	Egunez *Fernandez	Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez
Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Arriola	Iluntzean Arriola	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Yudego	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Yudego

*** Fernandez:**
Herriko enparantza, 4
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

*** Ibañez:**
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

*** Oruesagasti:**
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte guztian, gaez: 22:00-09:00
Barandela - Ziriako Agirre kalea, 4 (Eibar)
943 206 984

Zinea (Herriko Antzokian)

'Adú'

21 barikua: 21:30
22 zapatua: 19:00 / 22:15 (VOS)
23 domeka: 19:00
24 astelehena: 21:30



'Turuleka oiloa'

(Euskaraz)

23 domeka: 16:30



BARREN

Jarri ezazu zure publizitatea **BARREN** astekarian
edo

www.barren.eus webgunean

943 744 112

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3 ezk. - 20870 ELGOIBAR





Jose Ramon Cabrera



Iñaki Goitia



Eternitatera begira nagoen honetan, aldiro luzatzen dut besoa, hatzokin ukitze aldera. Baina hatzok motze-giak dira edo eternitatea urrunegi dago. Biak ala biak, beharbada. Eta martxan ditut jada hankok. Hur-hurrean da eternitatea, nire bi *begizurti* hauen aburuz...

Bideari ekingo diot, alabaina, harik eta hankokin eternitatera heldu arte, harik eta hatzokin eternitatea heldu arte. Izan ere, horren zait beharrezko, ezen hankok nekatzeko, hatzok mintzeko, edozertarako prest nengoke hura lortze aldera. Nahitaezko zait bere iragana, nahitaezko bere oraina, nahitaezko bere etorkizuna. Hirurak elkartzen diren puntua, horixe da eternitatea, edo lerroa, beste askoren aburuz. Bost axola lerroa zein puntua, distantzia da hemen gakoa; ibili arren inoiz higitzen ez den distan-

tzia, ibili arren inoiz higituko ez den distantzia.

Halako batean, beste hark haize-errotak erraldoiekin nahastu zituen bezala, aurrean dudan eskultura dimentsio-ate batekin nahastu dut. Eta bera besteko axolagabea naizenez atea zeharkatu dut. Baita beste dimentsio baten azaldu ere. Bekoz beko daukat hemen ere eternitatea, ordea. Bere kolore hordigarri eta ezinezkoekin.

Hala ere, oinez darrait, hatzei tiraka darrait, haiek arindu daitezten, hauek luza daitezten. Noiz edo noiz begiak ixten ditut, nire bi *begizurti* hauek ixten ditut, distantziaren paradoxa estalia izan dadin edo. Eta orduan, iluntasunean, itsaso zabalarekin talka egiten dut. Eta begiak ireki. Eta horra hor errealitatearen oztopoa, edo *oz-topea*. Eta horra hor eternitatea berriro begien bistan. Eta horra hor horizontea, batzuen batzuk horrela deitzen baitiote. Bost axola ze izen duen, distantzian dago gakoa.

“Hala ere, oinez darrait, hatzei tiraka darrait, haiek arindu daitezten, hauek luza daitezten”



II. URTEURRENA

Mikel Gorostiza Etxaniz

2018ko otsailaren 22an hil zen, 94 urte zituela.
Haren oroimenez II. urteurreneko meza izango da,
astelehenean, otsailaren 24an, 19:00etan,
Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.
Joango zaretanoi aldez aurretik eskerrak.

***Zure maitasuna betiko izango dugu
gure bihotzean.***

Etxekoak



VI. URTEURRENA


Bittor Alberdi Elorza

"Patxillo"

2014ko otsailaren 18an hil zen, 51 urte zituela.

***Masailetan behera malkoen gazia
ezin ahaztu denborak erakutsia
oroitzapenetan murgilduz aurrera doa bizia
zuk emandako indarrarekin esaten dizugu
gero arte, maitia.***

Etxekoak



Eskertzak eta urteurrenak 943 744 112

Aito Agirre Kulturgunean gaudе, 3. solairuan



Etorri eta ateaк zabal-zabalik topatuko dituzue

Ordutegia: asteleheneretik barikura 9:00-17:30 / barikuetan: 9:00-14:30

Elgoibarko Iazra Euskaltzaleon Topagunea Elkartera:

- Orokorra: 943 741 626 - elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus
- Barren komunikazioak: 943 744 112 - barren@elgoibarkoizarra.eus
- Aitzolamania Aisialdi Taldea: 943 741 746 - aitzolamania@elgoibarkoizarra.eus